



Giza Eskubideen X. Zinemaldia Hizkuntza erabileraren neurketa

1. SARRERA	2
2. METODOLOGIA	3
3. AHOZKO ERABILERA	4
3.1. Filmak	4
3.2. Ekitaldi nagusien ongi etorri eta aurkezpenak	4
3.2.1. Aurkezpen Ekitaldia	4
3.2.2. Itxiera Ekitaldia	5
3.3. Filmen ongi etorri eta aurkezpenak	5
3.4. Aurkezpen prentsaurrekoa	7
3.5. Prentsaurrekoak	7
3.6. Mahai inguru eta solasaldiak	7
3.7. Tailerrak	8
3.8. Jendaurreko zerbitzuak	8
4. IDATZIZKO MATERIALA	9
4.1. Katalogo ofiziala	9
4.2. Programazio liburuxka	9
4.3. Esku orriak, sarrerak,	9
4.4. WEB gunea	10
4.5. Prentsarako materiala	10
5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	11

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, Giza Eskubideen Zinemaldiaren hizkuntza erabileraren neurketa egin du aurtengo edizioan. Orain arte, Donostiako aisialdian eragina duten beste ekintza nagusietan ere hala egin izan dugu: Dferia, Aste Nagusia, Jazzaldia, Donostiako Zinemaldia eta Beldurrezko eta Fantasiatzko Zinemaldia.

Garrantzitsua da oso euskararen erabilera normalizatzea eguneroko bizitzan. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskararen presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomia Erkidegoan. Gainera, Donostiako udal ordenantzek euskarari ofizialtasun hori aitortzen diote eta Udalak antolatutako ekintza guztietan euskarak lehentasuna izan behar duela esaten dute.

Beraz, Giza Eskubideen Zinemaldian antolatzen diren jardueretan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu BAGERAK; hau da, Giza Eskubideen Zinemaldian euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Asteak bere gain hartzen dituen momentu guztiak neurtzen saiatu gara: filmen aurkezpenak, euskaraz azpigitulua dutenak edota bikoiztutako filmak, programazio aurrerapenaren txostena, filmez filmeko gida, kartelak etab. neurtu ditugu.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 3 ataletan azaldu dugu eta kasu guztietan ele bitan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gazteleraz egin zela esan nahi dugu.

a) Ahozko erabilera: Filmak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, film emanaldietako ongi etorri eta aurkezpenak (ongi etorria, sarrerako lehen hitzak eta aurkezpena pelikulen xehetasunak ematerakoan) eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da Astean. Antolakuntzaren argitalpenak (filmez filmeko gida, programazioaren aurrerapen txostena, ...), kartelak, web gunea, errotulazioak etab. izaten ditugu aztergai.

c) Erakusketak: Atal honetan Astearen baitan antolatzen diren erakusketetan egiten den hizkuntza erabilera neurtzen dugu.

3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Filmak

Atal hau Zinema Astearen ekintzarik garrantzitsuena dela gogoan izan behar dugu. Aurten, asteak 20 film luze eman ditu eta horietatik, 7 filmetan euskaraz entzun edo irakurri ahal izan dugu (hau da, euskaraz edo euskarara bikoiztuak izan dira edota azpigitulua euskaraz izan dute). Horietatik, 4 sail ofizialean eta 3 haur eta gazte saioan. Bestalde, 21 labur eskaini dira eta horietatik 4 euskaraz azpidatzita.

Sailez sail honakoak izan dira aurten eskainitako filmak eta euskarazko emanaldien kopurua:

- Inaugurazioa: Film labur bat (turkoz / azpigituluak: gazteleraz eta ingelesez) eta film luze bat (frantsesez / azpigituluak: gazteleraz) proiektatu zuten. Bat ere ez euskaraz.
- Film luzeen sail ofiziala: 16 filmetatik 4 film euskaraz edo euskarara azpidatziak izan ziren (*Gazta zati bat*, *Ziztadak*, *Circumstance* eta *Michael* filmak).
- Film laburren sail ofiziala: 15 filmetatik bat euskaraz izan da eta 3 izan dira euskaraz azpidatziak.
- "Zinea eta gerra zibila Euskal Herrian" (Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrenean): 4 saio berezi proiektatu ziren. Bat ere ez euskaraz.
- "Europako zinea bidean": film 1 proiektatu zuten (gasteleraz).
- Haur eta gazte saioak 2 film labur izan zituen (hizkuntzarik gabeak) eta beste 3 film luze (hiruak euskarara bikoiztuak).
- Bukaera: Proiektatutako filma bertsio originalean izan zen, gasteleraz eta arabieraz (gastelerazko azpigituluekin).

3.2. Ekitaldi nagusien ongi etorri eta aurkezpenak

3.2.1. Aurkezpen Ekitaldia

Giza Eskubideen Zinemaldiari hasiera ofiziala emateko, aurkezpen ekitaldi bat antolatu zuten proiektzioen aurretik. Ainhoa Aierbe aktorea izan zen aurkezpen horren gidaria. Euskara eta gastelera, biak modu orekatuan erabili zituen Ainhoak, mezu bera hizkuntza batean zein bestean errepikatu gabe.

Juan Carlos Izagirrek ere aurkezpenean parte hartu zuen. Kasu honetan ere bi hizkuntzen arteko oreka mantendu zuen Donostiako alkateak.

Bestetik, gorren hizkuntzara itzulpena egiteaz arduratu zen neska gazte bat ere ikusi ahal izan genuen.

3.2.2. Itxiera Ekitaldia

Ainhoa Aierbe aktorea izan zen gala aurkezteaz arduratu zena, gorren hizkuntzara itzulpena egiten zuen gazte batekin batera. Irekiera ekitaldiko eskema errepikatuz, euskara eta gaztelera, bi hizkuntzak tartekatu zituzten.

Aitor Moreno, Amnistia Internazionaleko kideak ere parte hartu zuen (euskaraz).

Donostiako alkatea, Juan Carlos Izagirre, bi hizkuntzetan aritu zen bere parte-hartzean.

Ondoren, aurtengo zinemaldiko saridunak aurkeztu zituzten. *Rindete mañana* (Zuzendaria ingelesez eta itzulpenak gaztelera. Pablo Ibar gaztelera). *Los monstruos no existen* (Paul Urkijo zuzendaria, euskaraz eta gaztelera) eta *Vol especial* (Isaki Lacuesta zuzendaria gaztelera).

Aurtengo sari berezia ICIAR BOLLAIN aktore eta zuzendariari eman zioten. Gaztelera aritu zen bera.

Itxiera ekitaldia amaitu aurretik, Wilaya filmean parte hartu duten 3 kide izan ziren (zuzendaria eta bi aktore). Hirurak gaztelera.

3.3. Filmen ongi etorri eta aurkezpenak

Filmen ongi etorri eta aurkezpenak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu ekitaldi batzuk film bat baino gehiagoren emanaldia izan arren (normalean, laburren bat lehenengo eta luze bat ondoren), ekitaldi osoak aurkezpen bakarra izan duela.

BAGERAK behatutako filmetan, **aurkezpenen sarrerak** bi eletan izan dira, gehienetan euskara eta gaztelera tartekatuz, hau da, ez da bata besteari itzulpena egin, esaldi ezberdinak tartekatu dira. Bestetik, filmaren zuzendariak edo filmeko aktoreak hitza hartu duenean, bere jatorrizko hizkuntzan egin du eta euskaraz edo gaztelera ez zen beste hizkuntza batean egin duenean, itzulpena gaztelera bakarrik egin da.

Apirilak 21

- 19:00. *Gazta zati bat*. Aurkezpena Begoña del Tesok egin zuen euskaraz. Ondoren, Jon Maiak hartu zuen hitza euskaraz.

Apirilak 22

- 19:00. *Raogo* eta *Los ojos de la guerra*.

Aurkezpena Begoña del Tesoren eskutik. Euskaraz, lehendabizi, eta gazteleraz ondoren.

- 22.30. *Les yeux de la tête* eta *Circumstance*.

Aurkezpena, euskaraz soilik egin zuen Begoña del Tesok.

Apirilak 23

16:30. *Ngutu* eta *Esto no es una película*.

Aurkezpena Begoña del Tesoren eskutik. Euskaraz hasi zen. Isaki Lacuesta zuzendaria aurkeztu ondoren, gazteleraz jarraitu zuten biek. Horrez gain, Irango jatorria duen eta erbestean bizi den zinema zuzendari bat aurkeztu zuten biek, Abbas izenekoa. Abbasek bere jatorrizko hizkuntzan hitz egin zuen (persieraz edo farsieraz). Hori dela eta, bi itzultzaileen beharra izan zen (batak esandakoa frantsesera itzultzen zuen eta ondoren besteak gaztelerara).

19:00. *Los monstruos no existen* eta *Vol spécial*.

Begoña del Tesok ohiko eskema errepikatu zuen. Aurkezpena euskaraz hasi, gero gazteleraz jarraitu. Bide batez, *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala iragartzeko erabili zuten aurkezpena. Azalpenak euskaraz eta gazteleraz eman zituzten.

Jarraian, *Los monstruos no existen* film laburra aurkeztu zuen bere zuzendariak, Paul Urkijok. Bi hizkuntzetan.

Apirilak 24

19:00. *La mirada perdida* eta *30 años de oscuridad*.

Aurkezpena euskaraz eta gazteleraz. Dokumental luzean parte hartu duten 3 gonbidatuak aurkeztu zituen Begoña del Tesok. Tartean Xabier Berzosa. Berarekin euskaraz aritu zen eta gainontzeko 2 kideekin, berriz, gazteleraz.

Apirilak 25

16:30. *Beast* eta *Michael*.

Aurkezpena euskaraz eta gazteleraz, Begoña del Tesoren eskutik.

Apirilak 26

19:00. *Gernika eta Rindete mañana.*

Aurkezpena ohiko moduan, bi hizkuntzetan. *Rindete Mañana* dokumentaleko zuzendaria eta ekoizlea aurkeztu zituzten ostean. Ingeleseztan aritu ziren. Itzulpenak, gaztelaraz.

3.4. Aurkezpen prentsaurrekoa

Aurkezpen nagusian, Nerea Txapartegik (Udaleko Kultur Ordezkariek), Jose Miguel Beltranek (Zinemaldiko Zuzendariak) eta Juan Karlos Izagirrek (Alkateak) hartu zuten parte. Izagirrek eman zion hasiera prentsaurrekoari eta bi elektan egin zuen (aurrena euskaraz eta ondoren gaztelaraz laburrago). Ondoren, Nerea Txapartegik hartu zuen hitza lehenbizi euskaraz eta ondoren gaztelaraz, Jose Miguel Beltranek euskaraz egin zuen, ondoren aipatutako datu garrantzitsuenak gaztelaraz eman zituen.

Jarraian, galdera tarteak zabaldu zen eta gaztelaraz izan ziren galdera-erantzunak.

3.5. Prentsaurrekoak

Atal honetan Zinema Asteko ekintzak aurkezteko egin diren prentsaurreko guztiak hartu ditugu kontuan, bai filmei buruzkoak, bai erakusketei buruzkoak eta bai balorazioarenak. Balorazio prentsaurrekorik ez da izan. Prentsa ohar bat bidali zuten posta elektronikoz (euskaraz eta ondoren gaztelaraz).

Asteazken zehar egindako prentsaurrekoetan Jose Miguel Beltranek (Zinemaldiaren arduradunak) ematen zion hasiera prentsaurrekoari, nahiko labur. Hizkuntza erabilera prentsaurrekoan parte hartu behar zuen pertsonaren arabera izan da, gehienetan gaztelaraz. Beste hizkuntza batean izan den kasuetan itzulpena gaztelarara egin da. Euskara hasierako agurrean, hurrengo eguneko programazioaren errepasoan eta gonbidatuaren aurkezpenaren erabili izan da normalean. Jose Miguel Beltranek zein prentsaurrekora hurbildutakoek egindako galderak beti gaztelaraz izan dira eta erantzunak gaztelaraz.

3.6. Mahai inguru eta solasaldiak

Zenbait filmen ondoren, solasaldiak egon dira eta honakoak dira guk behatu ditugunak:

Apirilak 22, *Los ojos de la guerra*

Proiektzioaren ostean, film horretan parte hartu duten zenbait lagunekin solasaldi luzea izan zen. Tarteaz Mikel Aiestaran kazetaria

zegoen. Begoña del Tesok euskaraz aurkeztu zuen. Halere, hortik aurrerako galdera guztiak gazteleraz egin ziren. Publikoan zeudenek ere gaztelera soilik erabili zuten.

Apirilak 23, Vol spécial

2 emakume gonbidatu zituzten. Biek emandako azalpenak gazteleraz soilik. Ikusleek egin zituzten galdera guztiak ere gaztelera hutsean izan ziren.

Apirilak 24, 30 años de oscuridad.

Dokumentalean parte hartutako 3 lagunekin egin zen mahai-ingurua. Begoña del Tesok euskara eta gaztelera, bi hizkuntzak erabili zitezkeela aipatu zuen baina publikoak galdera guztiak gazteleraz soilik egin zituen.

Apirilak 26, Rindete mañana.

Dokumentalean parte hartu duten zenbait kiderekin mahai ingurua egin zen. Tartean, Pablo Ibar. Mahai ingurua ingelesez eta gazteleraz. Itzulpenak gazteleraz soilik.

3.7. Tailerrak

Apirilaren 25ean San Telmo Museoan egon zen "Ikusezin dena filmatzea" tailerrean egon ginen.

Bertan pare bat hitzaldi izan ziren. Aurkezpena euskaraz, labur. Hortik aurrerakoak gazteleraz soilik.

Lehendabizikoan, Itziar Ruiz-Jiménez Arrieta ibili zen hizlari moduan. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Nazioarteko Harremanetako irakaslea. Horrez gain, Amnistia Internazionalen kidea ere bada. Aurkezpen horretan power point bat erabili du. Gazteleraz informazio guztia.

Goizeko 11.15etatik aurrera, berriz, Abbas Bakhtiari, Pariseko Centre Culturel Pouyaren zuzendaria aritu zen hizketan. Kasu honetan hitzaldi osoa frantsesez egin zuen. Itzulpenak, gazteleraz bakarrik.

3.8. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugun neurtu nahi izan dugu.

Hainbat ekitalditan zeuden laguntzaileekin euskaraz egin ahal izan dugu.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har Zinemaldiko antolakuntzari dagokion idatzizko materiala ele bitan edota hiru eletan idatzirik dago.

4.1. Katalogo ofiziala

"Giza Eskubideen X. Zinemaldia"-ren katalogoan, astean zehar izango diren film eta bestelako ekintzei buruzko informazioa azaltzen da 90 orrialdetan. Azalean kartel ofiziala du, hiru eletan. Kontrazalean, berriz, antolatzaileen, babesleen, parte-hartzaileen eta laguntzaileen logotipoak daude. Liburuaren barruan, lehenik, film baten kartela azaltzen da (Las nieves del Kilimanjaro) fitxa teknikoa eta oharrak gaztelera hutsean, jarraian Juan Karlos Izagirre alkatearen agurra irakur dezakegu hiru eletan. Ondoren, filmei buruzko informazioa hiru eletan dago eta izenburua jatorrizko hizkuntzan ageri da; alboan datorren fitxa teknikoa euskaraz dago. Gainontzeko ekintzei buruzko informazioa hiru eletan dago. Informazioaz gain, hainbat iragarki edo filmen kartelak daude. Filmek hamaika kartel daude, 7 gazteleraz, 2 euskaraz, 1 hiru eletan eta beste 1 ingelesez. Honetaz gain, 3 iragarki daude, 2 bi eletan (Olatu talka eta Aieteko Kultur Parkea) eta bat ingelesez (Bitez Logos).

4.2. Programazio liburuxka

32 orriko liburuxka bat da. Azalean kartel ofiziala du, hiru eletan. Kontrazalean, berriz, antolatzaileen, babesleen, parte-hartzaileen eta laguntzaileen logotipoak daude. Barnean, film bakoitzaren azalpen labur bat dago, ele bitan, euskaraz lehentasuna duelarik (euskarazko testua beltzez, gaztelerazko testua grisez).

4.3. Esku orriak, sarrerak, ...

Atal honetan Zinema Astearen inguruan sortzen den beste material idatzia biltzen dugu, kontuan izanik hau dela jende gehienarengana iristen den materiala.

Emanaldietarako eskuratu ditugun sarrerak bi eletan egon dira, baita haurrentzako filmetako gonbidapenak ere.

Filmei botoa emateko orria eta Giza Eskubideen IX. Zinemaldiaren ebaluaketa orrian azaltzen den informazio guztia bi eletan dago.

Haurralde fundazioak "*Afrika zabaldu*" erakusketaren inguruan kaleratutako esku orria bi eletan jaso dugu.

San Telmo Museoak kaleratutako bi esku orriak bi eletan, euskarari lehentasuna emanaz (*Ikusezin dena filmatzea* tailerrarena eta *1937 gogoaren bidezidorretatik* dantza eta irudi ikuskizuna).

4.4. WEB gunea

Web gunean, lehenik hizkuntza aukeratzeko pantaila agertzen da, euskara (Sartu), gaztelera (Entrar) eta ingelesa (Enter), aipatutako ordenan. Informazio guztia hiru hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du bi kasu hauetan izan ezik:

- Salmenta sarrera loturan klikatzean Kutxako gaztelerazko bertsioko orrira bidaltzen zaitu.
- Google kaleen mapan kaleen izen gehienak gazteleraz daude.

4.5. Prentsarako materiala

Prentsaurrekoetan eta antolakuntzak emandako poltsan eskuratu izan dugun materiala bildu dugu atal honetan: prentsa txostena, eguneko programazio txostenak, filmei buruzko informazio txostenak, erakusketei buruzko informazio txostenak eta prentsarako dossierra. Informazio guztia, ele bitan edo hiru eletan zegoen.

Film luzeen, film laburren, erakusketen eta beste jardueren argazkiak agertzen ziren Cd-an, karpeten izen guztiak ele bitan agertzen diren arren, argazkien izenak gazteleraz daude gehienetan (*Cuentos y pinturas, Escuelas de otros mundos, Desaparecidos, El bombardeo de Gernika, Firmar lo invisible ...*).

Eskuratu ditugun pelikulen, erakusketen eta bestelakoen prentsa oharren informazioa honakoa izan da: prentsa ohar gehienak euskaraz edo gazteleraz eskuratzeko aukera zegoen baina dossierren kasuan gehienak gazteleraz banatzen zituzten (hala nola, *hijos de las nubes, 30 años de oscuridad, camara oscura...*); Giza Eskubideen sariak ele bitan, Gazte epaimahaiaren dossierra bi eletan; azkenik, balantzearen prentsa oharra euskaraz jaso dugu.

Bestetik, posta elektroniko bidez bidalitako prentsa oharretan, informazioa euskaraz eta gazteleraz jaso dugu. Antolakuntzarekin zuzenean izan ditugun mezu trukaketetan euskaraz egin dugu; prentsa bulegotik, aldiz, gazteleraz jaso ditugu erantzunak.

5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK


Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.

Ahozkoan eta filmetan erabilitako hizkuntzari dagokionez, 17 film luze parte hartu zuten Sail Ofizialean eta lau izan ziren euskaraz, euskarara azpidatziak edota bikoiztuak. Film laburretan, 15 film proiektatu ziren, horietatik lau euskaraz azpidatziak. Saio bereziei dagokionez film luze bat eta 4 film laburretatik bat ere ez euskaraz. Haur eta gazteentzako saioetan, aldiz, 3 film luzeetatik 3ak euskaraz izan dira. Film laburrei dagokienez hizkuntzarik gabeak izan ziren. Ikusten denez, aurten iazko datuekin alderatuta euskarazko filmak goraka egin dute (film luzeen kasuan, 1etik 4ra eta laburretan berdin, 1etik 4ra. Haurren kasuan 2tik 3ra). Hala ere, oraindik lan handia dago egiteko euskaraz azpidatzitako edo euskaraz bikoiztutako filmen kopurua handitzeko, euskarak dagokion presentzia izan dezan. Saio berezietan adibidez, euskararen arrastorik ez da egon.

Euskararen garapena (2010-2011-2012):

	Film luze	Film Labur	Saio Berezi	Haur (Luze)	Haur (labur)
2010	2 (% 8,33)	0 (%0)	0 (%0)	3 (%100)	0 (%0)
2011	1 (%4,55)	1 (%5,26)	0 (%0)	2 (%66,67)	0 (%0)
2012	4 (%25)	4 (%26,67)	0 (%)	3 (%100)	0 (%0)

Iazko datuekin alderatuta, grafikoan ikus dezakegu, euskarak film labur eta luzeetan gorakada egin duen bitartean saio berezietan ez dagoela euskararen presentziarik.



Zinemaldiaren aurkezpen prentsaurrekoan, ekitaldi nagusien eta filmen **aurkezpenetan**, iaz ez bezala, aurten, bi hizkuntzen arteko oreka, bermatu egin da eta hori zoriontzekoa da. Hala ere, gonbidatuek euskara edo gaztelera erabili ez duten kasuetan itzulpena gaztelarrera bakarrik egin ohi da (bukaerako jaialdian zein filmen aurkezpenen kasuan). Horretaz gain, ekitaldi nagusietan proiektatzen diren **filmetan** euskara bermatu beharko litzatekeela uste du BAGERAK.

Prentsaurrekoetan, mahai inguruetan eta tailerretan, aldiz, euskararen presentzia ez da behar bezain bestekoa izan. Kasu hauetan, euskara hasierako agurretara mugatu baita eta gaztelera euskararen gainetik izan da nabarmen.

Idatzizko materialari dagokionez, antolakuntzak kaleratzen duen materialean elebitasuna mantendu da eta positibotzat jotzen dugu, katalogo ofizialean, fitxa tekniko guztiak euskara hutsean idatziak egotea.

Posta elektronikoz jaso ditugun prentsa ohar guztiak, euskaraz edo bi eletan jaso ditugu. Prentsaurrekoetan banatutako film ezberdinen prentsa "txostenetan" aldiz, gaztelera izan da nagusi. Kasu hauetan, film horien ekoizleek argitaratutako dossierrak izaten dira, baina uste dugu, antolakuntzak banatzen dituen momentutik, bere ardura ere badela.

Web guneari dagokionez, positibotzat jotzen dugu lehenik hizkuntza aukeratzeko pantaila agertzea. Bestetik hutsunerik nabarmenena, web orriaren izenean dago www.cineyderechoshumanos.com.

Orokorrean hartuta, BAGERAK ondokoa proposatzen dio Zinema Asteko antolakuntzari: dauden hutsuneak zuzentzea eta aurrerapausoak egiten jarraitzea, Zinema Astearen euskararen normalizazioa lortzeko begira. Hala nola, filmei dagokienez, euskarak leku zabalago baten beharra duenez, gutxienez, aurreko urteetako emanaldi kopurua handitzen joatea proposatzen dugu eta ahal den neurrian, euskarazko emanaldiak atal guztietan izan daitezela (saio berezietan ere bai). Prentsaurrekoetan eta ekintza paraleloen kasuan, erabiltzen diren hizkuntzen artean oreka mantentzeko bideak aztertu beharko lirateke eta euskara ez mugatzea soilik lehenengo ongi etorriko bi hitzetara. (Hala nola, euskara hutsezko saio bereziak tartekatuz, prentsaurrekoa aurretik gaztelera gailenduko dela jakinda, hasieran aurkezpen osoa euskaraz izatea, moderatzaileak gonbidatuei euskaraz galdetzea...). Bestetik, filmen ekoizleek argitaratzen dituzten prentsarako txostenak, gaztelera diren kasuetan, euskarara itzultzea. Azkenik, solasaldietan, aurkezpenak eta azalpenak modu orekatuan euskaraz eta gaztelaniaz izatea. Modu natural batean euskara erabiltzea.

Bide horretan, BAGERAren esku dagoen heinean, laguntza behar izanez gero, beti prest izango gaituzue.